



XABI LARRALDE

(Izura-Azme 1970, Baxenabarre). Batasuneko eleduna da. Frantziak euroaginduaren bidez Espainiara kanporatu duen Aurore Martin Batasuneko kideaz mintzatu gara abiaburuan: “Badakigu ongi dagoela, baina emazteen moduluan ez dago preso euskaldunik”, erran digu. Espetxean “ongi” egon daitekeen neurrian eta zentzuan ulertu dugu, bistan da.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Dani Blanco

«Aieteko efektua erabatekoa izan da Iparraldean»

AUORE MARTIN bilkura politikoak egitea, prentsurrekoak ematea edo iritzi artikulua idazteagatik atxilotuta dago Espainian. “Beraz, zu zeu ere, Xabi Larralde, atxilotua izan zaitezke” adierazi diogu gure solaskideari: “Bai. Areago, Iparraldeko Batasuneko kideok parte hartu baitugu bera akusatuta dagoen kausa berberetan. Berari tokatu zaio. Zein kalkuluren arabera? Batek daki!”.

Zein testuinguruan kokatu behar da Aurore Martinen atxiloketa?

Bi parametro daude. Bat, Euskal Herri osoari begira: Frantziako Barne Ministeriotik erabateko lerrokatzea izan da espainiarren posizioetara, haien diskurtsoak antzekoak dira. Manuel Valls Barne ministroak ere jarrera gogorra agertu nahi izan du Aieteko Adierazpenaren aitzinean. Bi: hemen bizi

dugun giro politikoak. Iparraldeko onarpen instituzionala eskatzeko adostasuna agerikoa da. Prozesua eta eztabaida pil-pilean daude Estatuak hasitako deszentralizazioaren desmartzaren bidean. Vallsen hitzak eta ekimenak Iparraldeko giro politikoak zapuzteko izan dira.

Manuel Vallsi edo Hollande presidenteari berari ekimena urrun joan ote zaien pentsa al dezakegu?

Aurore Martin Espainiako espetxe batean egoteak ekartzen duena alde batera, bistan da, egin duten aukera ez da izan Frantziako Gobernuaren ondorio politikoaren mesederako. Gizartearen aldetiko erreakzioa indartsua izan da, aho bateko salaketa jaso dute. Hartu duten jarrera guztiz defentsiboa da. Gobernuak dio ez dela erabaki politikorik izan, beraz, ez ditu ondorioak bere gain

hartu. Erraten ahal zuen: “Bai agindua eman dugu eta Martin kartzelan dago, legeak horrela aginduta”. Aldiz, zera erran dute: “Kasualitatez atzeman genuen bidean...”

Giro politikoak nola dago azken hilabeteetako gertakarien ondoren?

Gertatua inflexio puntu nabaria izan da, aurrekari handia da gure ibilbide historiko politikoan. Ekuazio hau idatzi nahian aritu gara urteetan: hemen gatazka politikoaren parametroak ez dira mugimendu abertzalearen eta Estatuaren artekoa, Euskal Herriaren eta Estatuaren artekoa baizik. Ekuazio hori begi guztien aitzinean agertu da orain, bizi-bizirik. Besteak beste, azken urtean bereziki, Aieteko Adierazpenak Iparraldean eragin duela eta hemengo eragile politikoek beste fase batean gaudela

sinesten dutelako. Lehengo arrazoiek edo aitzakiek ez dute balio. Agerikoa da Iparraldeak aro politiko berria ezagutu behar duela, onarpen instituzionalean oinarritua.

Egiguzu Aieteko Adierazpenaren urtebeteko balorazioa.

Iparraldeari begira, Aieteko efektu politikoa erabatekoa izan da. Hemen badago adostasun zabala. Espektro politikoaren %80 ados dago bake prozesuak aitzina segitzearekin, baita onarpen instituzionalaren sekuentzia politiko berria idaztearekin. Hegoaldean berriz, Espainiako Estatuaren jarrera biziki gordina da, ezezko biribilaren aitzinean gaude. Egiturazko arazoa da. Nahiz garaipen polizialaren bertsioa saldu nahi duen, Estatua galtzaile handia da arazo politikoari begira. Euskal Herriko eta Kataluniako gizarteetan proiektu independentistek ez dute sekulan egun duten indarra ukan. Aldi berean, krisi ekonomikoaren eraginez Espainiako Estatua lehertze zorian dago. Franco hil zenetik ez da horren koiuntura txarrean egon, jarrera defentsiboan dago bere iraupena kolokan ikusten baitu. Horren eraginez prozesuari modu bortitzean ekin dio orain arte.

Prozesuak bi alde ditu baina: gatazkaren konponbidea eta Euskal Herriaren burujabetzari buruzkoa.

Bi alde horien bi adibide daude Europan: Irlandakoa eta Eskoziakoa. Espainiak badaki gure estrategiak bi lerro horiei erantzutea eskatzen duela, eta badaki ere, gure urratsek indar metaketa

jomuga dutela, aldebakartasunez burujabetzaren bidean pauso berriak emanez. Ingalaterraren eta Eskoziaren arteko adostasunak datu bat utzi digu: gisa horretako gatazka politikoak bide politikoe-tatik eta irizpide demokratikoen arabera konpondu daitezkeela. Eskoziakoak antzeko egoera ekarri behar digu Hegoaldean. Hau da, herri batek autodeterminazio eskubidea gauzatzen du eta ez da mundua erortzen. Ingalaterrak lasai asko eusten dio egoera horri. Zergatik ez Espainiak?

“Lehengo arrazoiek edo aitzakiek ez dute balio. Iparraldeak aro politiko berria ezagutu behar du, onarpen instituzionalean oinarritua”

Bere jarrera aldatzeko itxaropenik bai? Nola ikusten duzu geroa?

Azken urteotan, mendebaldeko nazio batzuk burujabetzera heldu dira Europan. Parametroak eta jarrerak aldatu dira. Orain, Espainiako Estatua amildegiaren ertzera heldu da. Bere geroa politikoki eta ekonomiko kolokan dago Europan baitan. Munduko estatuak eta finantzariak Espainiari begira daude...

Krisi ekonomikoak eragin dezake estatuen jarreretan? Egoera ekonomikoa larria da. Espainian oso agerikoa.

Askok pentsa dezake, 27 Estaturen Europak ezin duela funtzionatu kri-

siari aurre egiteko. Nola onartuko ditu estatu berriak, mendebaldean bizi dugun krisi ekonomiko latz honetan? Hain zuzen, egoera horretan ere Eskoziak eta Ingalaterrak tabua hautsi dute. Kataluniako eta Hego Euskal Herriko egoerak ikusirik, Espainiako autonomiaren markoa agortua dago. Madrilek bi aukera dauzka: estatua birzentralizatzea, nekeza dena, ala, halabeharrez, estatuaren erreforma gauzatzea, eredu federala edo beste eredu baten bidez.

Krisiak eragin dezake beraz.

Bai. Baina, kasu! Europan daukagun fenomenoak biziki adierazgarria da. Euroak ekarri du ekonomia-aren espezializazioaren azkartzea, Alemaniaren berrindustrializatzea posible egin duena. Bere burua birbatu zuen, eta hoge urteren ondoren lortu du industria handiena izatea Europan eta lehiakorrena munduan. Industriaren espezializazio prozesu horren harian, Europako iparraldeko herriek orobat eutsi diote haien gaitasun industrialari. Hegoaldekoak berriz desindustrializatu dira, Frantziako Estatua barne. Desoreka hori biziki handia da, merkataritza balantzeen desoreka izugarria eragiten dutena. Iparraldekoen balantza komertzialek soberakinak dituzte eta hegoaldekoek aldiz, defizitak. Egoera horretatik ateratzeko, euroan geratuz, eredu politiko bakarra federalismo da. Edo gutxienez, bitarteko batzuen mutualizazioa ezartzea da, egoera txarretan dauden estatuak egoera larri honetatik ateratzeko.



TALLERES MITXELENA

S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000

Fresadora: 10.000 x 3.500

Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)

T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com



“Gure abertzaletasuna ez da agertu behar, gu indartsuak eta aberatsak garen aldetik, finantzaren eta kapitalaren kontra ari diren herri eta gizarte behartsuekin batera baizik”.

Nola eragiten du horrek beren burujabetasunaren alde ari diren herriengan?

Testuinguru horretan, Flandria, Eskozia, Italiako iparraldea, Katalunia eta Euskal Herria eskualde aberatsak dira. Batzuek diotenez, independentziaren aldeko hautua suspertu da, herri aberats horiek ez dutelako herri pobreekin elkartasunean segitu nahi. Ni ez nago ados. Krisiaren parametroak ez dira horiek, beste hauek baizik: batetik gizarteak daude eta bestetik, hauen parean, botere faktikoak, bankuak eta botere finantzariak. Beraz, gure abertzaletasuna ezkerretik eta ikuspegi internazionalistatik landu behar dugu Herrien Europaren alde eta Europako herri guztiakin elkartasunean. Ni, adibidez, elkartasun harremanetan ari naiz Andaluziako langileekin, ez Euskal Herriko zati bat Espainiako parte delako, euskal herritar bezala krisi horretan andaluziar langilearekin harrapatuta

nagoelako baizik. Hala nola Portugal, Grezia, Italia edo Islandiako langileriarekin ere. Krisiaren aurrean herritar eta langile klase berean nagoelako.

Beraz...

Gure abertzaletasuna ez da agertu behar, gu indartsuak eta aberatsak garen aldetik, finantzaren eta kapitalaren kontra ari diren herri eta gizarte behartsuekin batera baizik. Lastre batzuk utzi beharreko ditugu atzean.

Burujabetzaren printzipioa ondo ikasi, landu eta erabili beharra dago.

Bai. Burujabetza kontzeptu eraginkorra bilakatu da kapitalismoaren krisiari aurre egiteko. Batzuek, agian, kolokan jarriko dute bere potentzialtasuna, baina begiratu diezaiozun Islandiari. 300.000 biztanle inguru ditu. European bakarretakoa da bere zorra osoki ordaintzeari uko egin diona. Ariketa demokratiko batek behartua egin du. Bi erreferendum egin dituzte, herritarrei galdetuz: Zorra ordaintzen dugu? Eta bietan ezetz erran dute. Islandiako Estatua behartua izan da Nazioarteko Diru Funtsari eta Ingalaterrako Bankuari ez ordaintzera. Krisia zer da? Kapitalak herriei gaina hartu diela. Indar korrelazioa itzulikatu behar dugu. Botere politikoak ezarri behar ditugu botere ekonomiko eta finantzarien gainetik, herrien autodeterminazio eskubidea arautu ahal izateko.

Industriaren espezializazioa aipatu duzu arestian. Sakondu horretan.

Burujabetza printzipioak kapitalismoak eta liberalismoak nazioartean ezarri dituzten lan banaketa eta espezializazio moduak aldatzen lagundu behar digu, printzipioaren funtsa hau delarik: herri guztiak modu duinean bizitzeko eskubidea dute, eta horrek eskatzen du bakoitzak bere ahalmenetik eta alor dibertsifikatutik ekonomiari eutsi ahal izatea. Nazioarteko ekoizpen espezializazioa garatu ordez —merkatuei eremua libre utzi gabe— beste ekoizpen molde bat landu behar dugu.

Iparraldeko erakundetzea hizpide: askok eredu bezala jo dute Lurralde

Elkargoa helburu burutzen ari den ibilbidea. Zein dira prozesuaren gakoak?

Bat, gure hautu estrategikoa adostasun eremuan kokatzea eta gure harritxoak ekartzea eremu horretara. Guk [Batasuna] Iparralderako autonomia estatua defendatzen dugu, erabakitzeko eskubidea barne. Hori ez da Lurralde Elkargoa, baina adostasuna lortu behar dugu, kontuan hartuta guk zer pisu dugun. Gehiengoak eraiki behar ditugu, onartuz bakoitzaren lekua zein den. Bigarren gakoak herri dinamika da, bi ardatz dituena: abiatu garen puntua zehaztea eta puntu horretatik zer perspektiba dauzkagun ongi ikustea.

Abertzaleek oro har, zer irizpide ekarri duzue adostasun horretara?

Lau irizpide: bat, Estatus Berezia da landu behar dugun formula. Hau da, Frantzia Euskal Herria berezia den aitortza lortzea. Bi, egitura horrek gutxieneko gaitasunak jaso behar ditu, Hautetsien Kontseiluak lehenetsi dituenak (garapen ekonomikoa, mugaz gaindiko harremanak, lurraren eta etxebizitzaren antolaketa, eta hizkuntza eta euskal nortasuna). Hiru, estatus horrek aldakorra izan behar du, eta horrela aitortua hasieratik. Eta lau, horien inplementatzeko prozedurak ezartzea euskal gizarteak erabakitzeko gaitasunarekin. Erreferendumaren bitartez, adibidez.

PS eta UMP alderdietako kideak ere, besteak beste, prozesuan engaiatu dira. Nola gertatu da? Hori lorpena.

Aro berria heldu dela ulertu baitute. Hegoaldeko egoeraren efektua jaso dute. Hemengo politikariek hango instituzio autonomikoak ezagutu dituzte eta ohartu dira mundua ez dela erori autonomia dagoelako, alderantziz. Guk Lurralde Elkargoa lehenetsi dugu independentziara bidean, eta bien artean badago tartea. Badakite hori ez dela gure helburua, baina guk adostasuna eta herri borondatea errespetatzea proposatu ditugu. Erran nahi baita, geroan horien arabera, edozein bide landu ahal izatea berme demokratikoz. ■

